Firmante: IRUNGO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IRUN
ZENPE
09/2023 9:17:46

HIRI INGURUKO KIROL INSTALAZIOETARAKO ETA BESTE UDAL ERAIKIN BATZUETARAKO SARREREN KONTROL, MANTENU ETA KONTSERBAZIO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

-BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA-

CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE CONTROL DE ACCESOS, MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS PERIFÉRICAS Y OTROS EDIFICIOS MUNICIPALES

- PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS -

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	KULTURA ETA KIROLA / CULTURA Y DEPORTES
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2023ZAUN0023

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Baldintza Teknikoen Plegu honek eta bere Eranskinek, Irungo Udalaren mendeko hiri inguruko kirol instalazioetarako eta beste udal eraikin batzuetarako sarreren kontrol, mantenu eta kontserbazio zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten baldintzak zehaztu eta finkatzea dute helburu.

Kontratatu beharreko zerbitzuaren xedea da instalazioetan sarreren kontrol lanak egitea, plegu honetan zehazten diren egitekoak aurrera eramanez. Era berean, instalazio horien prebentzio eta mantentze zuzentzailerako lanak egingo dira, erabilera baldintza egokiak lortu ahal izateko.

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto de este Pliego de Prescripciones Técnicas y de sus Anexos es regular y definir el alcance y condiciones que habrán de regir para la contratación de los servicios de control de accesos, mantenimiento y conservación de las instalaciones deportivas periféricas y otros edificios municipales dependientes del Ayuntamiento de Irun.

El servicio a contratar tiene como finalidad las labores de control de accesos de las instalaciones cuyas tareas vienen definidas en el presente pliego, así como su mantenimiento preventivo y correctivo al objeto de lograr unas condiciones adecuadas para su uso.

2.- ZERBITZUEN DEFINIZIOA.

Ondoko hauek dira kontratu honek gai dituen zerbitzuak.

2.- DEFINICIÓN DE SERVICIOS.

A continuación se definen los servicios objeto de contrato.

2.A.- INSTALAZIOEN KONTROLA.

2.A.- CONTROL DE ACESSO A INSTALACIONES.

2.A.1.- JARDUERA ESPARRUA.

Honako hauek dira esleipendunak kontrolatu beharko dituen instalazioak:

- Urantzu pilotalekua (instalazioa eta txikia).
- Artiako instalazioak eta Ramuntxo Trinketa.

2.A.1.- ÁMBITO DE ACTUACIÓN.

La adjudicataria deberá realizar el control de las siguientes instalaciones:

- Frontón Uranzu (instalación y txiki).
- Instalaciones de Artia y Trinkete Ramuntxo.

- Ugalde-Kateako instalazioak.
- San José Futbol zelaia
- Dunboa HI Ikastetxea.
- Eguzkitza HI ikastetxea.
- Belaskoenean HI ikastetxea.
- Lekaenean HI ikastetxea.
- Kaleko kiroldegi-instalazioen.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, eraiki berriak edo erosi berriak diren eraikinak, eta Udalaren eskuetara igarotzen den beste edozein, kontratuan sartu ahal izango dira Udalak egokitzat hartzen badu.

- Instalaciones de Ugalde-Ventas.
- Campo de Fútbol San José
- Centro escolar Dunboa HI.
- Centro escolar Eguzkitza HI.
- Centro escolar Belaskoenea HI.
- Centro escolar Leka Enea HI.
- Instalaciones polideportivas de calle.

Durante la vigencia del contrato, los edificios que sean de nueva construcción o de nueva adquisición, y cualesquiera otros que pasen a disposición del Ayuntamiento, podrán integrarse en el contrato, siempre que el Ayuntamiento lo considere oportuno.

2.A.2.- EGITEKOEN ZEHAZTAPENA.

Instalazioak ireki eta ixte lanak, harrera zerbitzua, sarreren kontrol eta zaintza, erabiltzaileari informazioa eta arreta eskaini, atezaintza, kexa, iradokizun, abisu eta hobekuntzen antolaketa eta bilketa lanak egingo dira.

Ikastetxeen kasuan, instalazioak ireki eta ixteko lanak bakarrik egingo dira (itxi aurreko ikuskapena barne).

Kaleko kiroldegi-instalazioen kasuan, instalazioen itxiera ikuskatzeko eragiketak baino ez dira aurreikusten.

- **Ireki eta ixtea:**

Instalazioak irekitzeko eta ixteko maniobrei dagokienez, Udalarekin hitzartutako ordutegiaren arabera egingo dira.

Era berean, beharreko lanak egingo dira makineria, ekipo eta instalazioei begira, kirol esparruak behar bezala erabil daitezen.

- **Harrera:**

Erabiltzaileei instalazioetan harrera egingo zaie, zirkulazioen berri emango da.

- **Sarreren kontrola eta zaintza:**

Esparru desberdinetako sarrerak kontrolatu, identifikazioa egiaztatu eta alokairuak kudeatuko dira. Bidegabeko sartzeen alarmak eta instalazioen zaintzarako zirkuitu itxiaren sistema (baldin badago) gobernatuko dira.

- **Erabiltzaileari informazioa eta arreta eskaintzea:**

Informazioa telefonoz eta aurrez aurre emango zaie interesa duten herritar guztiei: zerbitzuen, prezioen,

2.A.2.- DEFINICIÓN DE LAS TAREAS.

Incluye las tareas de apertura y cierre, recepción, control de accesos y vigilancia, información y atención al usuario, conserjería, organización y recogida de quejas, sugerencias, avisos y mejoras.

En el caso de los centros escolares, se contemplan únicamente las operaciones de apertura y cierre de las instalaciones (incluida supervisión antes del cierre).

En el caso de las instalaciones polideportivas de calle, se contemplan únicamente las operaciones de supervisión de cierre de las instalaciones.

- **Apertura y cierre:**

En lo referente a las maniobras de apertura y cierre de las instalaciones, se realizarán atendiendo al horario convenidos con el Ayuntamiento.

De la misma manera, se realizarán los trabajos necesarios en cuanto a maquinaria, equipos e instalaciones para el correcto desenvolvimiento en el uso de los espacios deportivos.

- **Recepción:**

Acogida de los usuarios en la instalación, indicación de las circulaciones.

- **Control de accesos y vigilancia:**

Control de accesos a los distintos espacios, comprobación de la identificación, gestión de alquileres. Manejo de alarmas de intrusión, manejo de sistema de circuito cerrado de vigilancia de las instalaciones (si lo hubiera).

- **Información y atención al usuario:**

Telefónica y presencial a todos los ciudadanos interesados: acerca de los servicios, precios, horarios y calendarios,

ordutegi eta egutegien, eskubide eta betebeharren eta araudien inguruan, eta intereseko beste informazio oro ere.

- **Atezaintza:**

Kirol esparruen alokairua, sarreren erreserba eta salmenta, hori guztia indarrean dauden tarifen tasen eta aplikatu beharreko arauen arabera. Hala behar badu, baliozko eta galdutako objektuen gordailua, instalazioak eta kirol esparruak abiarazteko lanak, horiek erabil daitezen.

- **Antolakuntza:**

Aldagelak banatu eta esleituko dira, okupazioen eta jardueren eguneroko parteak egingo dira, informazio panelak eta iragarkien euskarriak jarriko dira, eta abisuak eta abar bildu eta eguneratuko dira.

- **Itxiera ikuskatzea (ikastetxeak):**

Ikastetxeen kasuan, aurretik begiratu beharra plantetzen da, inor gera ez dadin eskola-barrutian (patioetan) ixteko ordutik aurrera, eta kalterik balego, oharra eginez eta ixterakoan instalazioen egoera orokorra ere jasoz.

- **Itxiera gainbegiratzea (kaleko kiroldegi-instalazioak):**

Instalazio horien kasuan, instalazioen itxiera ikuskatzeko eragiketak aurreikusten dira, eta balizko kalteak eta instalazioen egoera orokorra jasotzen dira ixteko unean.

- **Gorabehera- eta komunikazio-parteak idaztea:**

Aurreko zereginei dagokienez, zerbitzuaren garapenean antzemandako gorabeherak (matxurak, hausturak, kalteak) jasoko dituzten parteak idatziko dira, eta, ondoren, astero jakinaraziko zaizkio udaleko Kirol Arloari.

Berariaz jasota uzten da ezin izango direla, inola ere, erreferentziazko udal-instalazioak erabili bulego-lanak egiteko edota zerbitzu hau ematearekin zerikusirik ez duten gaietarako.

2.A.3.- <u>ZERBITZUAK EMATEKO ERREFERENTZIA ORDUAK</u>.

Enpresa esleipendunak instalazioak kontrolatu eta irekita eduki beharko ditu jendearentzako irekiera-ordutegietan, Irungo Udalarekin adostutako ordutegien arabera.

Hurrengo atalean aurreikusitakoa salbu, zerbitzuak astelehenetik igandera emango dira, eta ordutegia 8:00etatik

derechos y obligaciones, normativa y cuanta información resulte de interés.

- **Conserjería:**

Alquileres de espacios deportivos, reservas y venta de entradas, todo ello conforme a las tasas y las normas de aplicación de las tarifas vigentes, en su caso, depósito de objetos de valor y objetos perdidos, maniobras de arranque de las instalaciones y espacios deportivos para facilitar la utilización de los mismos.

- **Organización:**

Distribución y asignación de vestuarios, partes diarios de ocupaciones y actividades, recogida, actualización de paneles informativos y de soportes de anuncios, avisos, etc.

- **Supervisión del cierre (centros escolares):**

En el caso de los centros escolares se contempla una revisión previa, evitando que las personas permanezcan en el recinto escolar (patios) a partir de la hora de cierre, anotando la existencia de posibles daños y el estado general de las instalaciones en el momento del cierre.

- **Supervisión del cierre (instalaciones polideportivas de calle):**

En el caso de estas instalaciones se contemplan las operaciones de supervisión de cierre de las instalaciones, anotando la existencia de posibles daños y el estado general de las instalaciones en el momento del cierre.

- **Redacción de partes de incidencia y comunicación:**

Respecto de las tareas anterior, la redacción de los correspondientes partes en los que se tomará nota de las incidencias detectadas en el desarrollo del servicio (averías, roturas, desperfectos…) y posterior comunicación semanal de las mismas al Área de Deportes del Ayuntamiento.

Se deja expresa constancia de que en ningún caso podrá hacerse uso de las instalaciones municipales de referencia para la prestación de labores propias de oficina y/o cuestiones ajenas a la prestación del presente servicio.

2.A.3.- <u>HORARIOS DE REFERENCIA PARA LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS</u>.

La empresa adjudicataria deberá realizar el control y mantener abiertas las instalaciones en los horarios de apertura al público conforme a los horarios acordados con el Ayuntamiento de Irun.

Salvo por lo previsto en el siguiente apartado, los servicios se prestarán de lunes a domingo, pudiendo variar su horario entre

22:00etara aldatu ahal izango da.

Udaleko Kirol Arloak denboraldi bakoitzean astelehenetik ostiralera zerbitzuak emateko aurreikusitako ordutegiak emango dizkio esleipendunari, hasiera batean, irailean. Larunbat eta/edo igandeetan zerbitzuak emateko ordutegiak aurrerapen nahikoarekin eta, gutxienez, 48 ordu lehenago zehaztuko dira.

Nolanahi ere, Udaleko Kirol Arloak hasieran aurreikusitako zerbitzuak emateko ordutegiak aldatu ahal izango ditu, esleipendunari gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazita.

Orientazio gisa, I. eranskinean honako informazio hau jasotzen da:

- Hasiera batean 2.A.1 atalean jasotako instalazioetan sartuko diren ordu arrunten aurreikuspena. Ordu horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta erabiltzaileen eta Irungo Udalaren eskariaren arabera alda daitezke.

- Instalazioak erabiltzeko erreferentziako ordutegiaren aurreikuspena.

2.A.4.- ZERBITZU BEREZIAK.

Aurrekoaren arabera aurreikusitako ordutegietatik kanpo dauden instalazioak irekitzeko, hau da, instalazioak ohiko erabilerarako itxita baina beste erabilera edo ikuskizun batzuetarako irekita dauden orduetan, enpresak zerbitzua eman beharko du, Udaleko Kirol Arloak aldez aurretik eta behar besteko aurrerapenarekin jakinarazita.

Zerbitzu horiek eskainitako irekiera bereziko orduko prezioen arabera fakturatuko dira.

las 8h y las 22h.

El Área de Deportes del Ayuntamiento facilitará a la adjudicataria los horarios inicialmente previstos para la prestación de los servicios de lunes a viernes para cada temporada, al inicio de la misma en el mes de septiembre. Los horarios de prestación de los servicios de sábados y/o domingos se concretarán con suficiente antelación y, al menos, 48 horas antes.

En todo caso, el Área de Deportes del Ayuntamiento podrá modificar los horarios para la prestación de servicios inicialmente previstos notificándoselo a la adjudicataria, siempre, con al menos 24 horas de antelación.

A título meramente orientativo, en el Anexo I se recoge la siguiente información:

- Una previsión de horas ordinarias en las que inicialmente se estima incurrir en las instalaciones recogidas en apartado 2.A.1. Dichas horas son orientativas y podrán variar en función de la demanda de los usuarios y del propio Ayuntamiento de Irun.

- Una previsión de horario de referencia de uso de las instalaciones.

2.A.4.- SERVICIOS ESPECIALES.

Para aperturas de las instalaciones que estén fuera de los horarios previstos conforme a lo anterior, esto es, en aquellas horas en las que las instalaciones estén cerradas al uso habitual pero abiertas para otros usos o espectáculos, la empresa estará obligada a dar el servicio, previa notificación expresa y con suficiente antelación por parte del Área de Deportes del Ayuntamiento.

Estos servicios se facturarán conforme a los precios hora de apertura especial ofertados.

2.B.- INSTALAZIOAK MANTENTZEA.

2.B.- MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES.

2.B.1.- JARDUERA ESPARRUA

Honako hauek dira esleipendunak mantendu beharko dituen instalazioak:

Instalazio itxiak

- Urantzu pilotalekua (instalazioa eta txikia).
- Artiako instalazioak eta Ramuntxo Trinketa.
- Ugalde-Kateako futbol zelaia.

2.B.1.- ÁMBITO DE ACTUACIÓN

La adjudicataria deberá realizar el mantenimiento de las siguientes instalaciones:

Instalaciones cerradas

- Frontón Uranzu (instalación y txiki).
- Instalaciones de Artia y Trinkete Ramuntxo.
- Campo de futbol de Ugalde-Ventas.

- San José futbol zelaia.
- Instalaciones San Marcial - Txingudi.
- Tenis de mesa.
- Plaiaundiko errugbi eta atletismo zelaia.
- Pinarreko Kirol instalazioak.
- Elatzetako Kirol instalazioak.
- Gain Gainean Kirol instalazioak.
- Urdanibia Berri Kirol instalazioak.
- Oinaurre kirol instalakuntzak.

Instalazio irekiak

- Kateako pilotalekua (Eliza).
- Kateako pilotalekua (Errotazar).
- Santiagoko pilotalekua (Euskal Jai).
- Behobiako pilotalekua (Mendipe).
- Larreaundiko pilotalekua (Berio).
- Hendaia kaleko pilotalekua (Anzaran).
- Antzarango Kirol instalazioak.
- Behobiako erabilera anitzeko pista.
- Santiago eta Martindozenea Skate Park eremuak.
- Pump track (Katea).

- Campo de fútbol de San José.
- Instalaciones San Marcial - Txingudi.
- Tenis de mesa.
- Campo de rugby y atletismo de Plaiaundi.
- Instalaciones Deportivas de El Pinar.
- Instalaciones Deportivas de Elatzeta.
- Instalaciones deportivas de Gain Gainean.
- Instalaciones deportivas de Urdanibia Berri.
- Instalaciones deportivas de Oinaurre.

Instalaciones abiertas

- Frontón de Ventas (Iglesia).
- Frontón de Ventas (Errotazar).
- Frontón de Santiago (Euskal Jai).
- Frontón de Behobia (Mendipe).
- Frontón de Larreaundi (Berio).
- Frontón c/ Hendaia (Anzaran).
- Instalaciones deportivas de Anzarán.
- Pista polivalente de Behobia.
- Zonas de Skate Park Santiago y Martindozenea.
- Pump track (Ventas).

Kontratua indarrean dagoen bitartean, eraiki berriak edo erosi berriak diren eraikinak, eta Udalaren eskuetara igarotzen den beste edozein, kontratuan sartu ahal izango dira Udalak egokitzat hartzen badu.

Durante la vigencia del contrato, los edificios que sean de nueva construcción o de nueva adquisición, y cualesquiera otros que pasen a disposición del Ayuntamiento, podrán integrarse en el contrato, siempre que el Ayuntamiento lo considere oportuno.

Deialdian parte hartu izanagatik soilik, dauden instalazioen eta kontratuak gai dituen elementu eta ekipo guztien egungo egoera onartzeko betebeharra du Esleipendunak, eta ez du inolako konpentsaziorik eskatzeko eskubiderik izango kontratuaren araberako obligazioak zehatz betetzeko egin beharreko gainahaleginagatik.

La empresa adjudicataria está obligada a aceptar, por el mero hecho de haber concurrido a la convocatoria, la situación en que se encuentren actualmente las instalaciones existentes y todos y cada uno de los elementos y equipos que son objeto del contrato, sin que tenga derecho a reclamar compensación alguna por el sobreesfuerzo que exija el exacto cumplimiento de sus obligaciones contractuales.

2.B.2.-<u>PRESTAZIOEN DESKRIBAPENA.</u>

Esleipendunak bere ardurapean emango ditu ondoko prestazio hauek aurreko puntuan aipaturiko instalazio horietan guztietan:

- **Prebentzio mantentze sistematikoa.**

Prebentzio mantentze sistematikoari begira beharreko berrikuspen eta egiaztapen guztiak, indarrean dauden araudietan halaxe xedaturik dagoelako edo erabilera intentsitateari begira materialen ezaugarriak direla-eta egitea komeni delako, edo fabrikatzaileek eginiko zehaztapenek halaxe eskatzen dutelako.

Esleipendunak beharreko neurri guztiak hartuko ditu lan horiek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten eraikinen eta

2.B.2.- <u>DESCRIPCION DE LAS PRESTACIONES.</u>

La empresa adjudicataria realizará bajo su responsabilidad, sobre el conjunto de las instalaciones definidas en el punto anterior, las prestaciones siguientes:

- **Mantenimiento Preventivo sistemático.**

Revisiones y comprobaciones correspondientes al mantenimiento preventivo sistemático que sean necesarias realizar, bien por estar así dispuesto en las normativas vigentes o bien por resultar aconsejables en función de las características de los materiales en relación a la intensidad de uso, o en función de las propias especificaciones de los fabricantes.

La empresa adjudicataria adoptará cuantas medidas sean necesarias para que dichas operaciones afecten lo mínimo

erabiltzaileen ohiko funtzionamenduan.

II. Eranskinean zehaztutako prebentzio mantentzeari dagozkion lan guztiak egiteko obligazioa du esleipendunak, horiek zerrenda itxia izan gabe, honako instalazio itxi hauetan:

- Urantzu pilotalekuan (instalazioa eta txikia).
- Artiako instalazio eta Ramuntxo Trinketan.
- Ugalde-Kateako futbol zelaian.
- San José futbol zelaian.
- Instalaciones San Marcial - Txingudi.
- Tenis de mesa.
- Plaiaundiko errugbi eta atletismo zelaian.

- **Mantentze Zuzentzailea.**

Batik bat instalazioen bideratze eta zaintza lanetik etorritako oharretatik abiatuta sumatu den mantentze zuzentzailea. Erabileragatik edo hondatu izanagatik instalazioetan gertaturiko matxura eta hondamenen konponketa ere sartzen da lan honetan.

Era berean, kontratuak gai dituen instalazioetan jakinarazten zaizkion lanak eta konponketak egiteko obligazioa du esleipendunak.

Esleipendunak ahalik eta epe txikienean egingo ditu mantentze zuzentzaileko lanak, eta beharreko neurri guztiak hartuko ditu lan horiek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten eraikinen eta erabiltzaileen ohiko funtzionamenduan.

- **Hobekuntzak.**

Kontratuaren arduradunak eskatzen dizkion hobekuntza lan puntualak egiteko obligazioa izango du enpresa esleipendunak, hauxe da, espazioak birbanatzeko lanak, konponbide teknikoak ematea instalazioetan gerta daitezkeen funtzionamendu arazoei eta beste, kontratu honek gai dituen instalazioetan.

- **Larrialdi zerbitzua.**

Esleipendunak etenik gabe ziurtatuko du matxurarik gertatzen bada edo instalazioak behar bezala funtzionatzen ari ez badira esku hartzea, baita larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan ere. Horretarako, 24 orduko zerbitzua antolatuko du, egokiak diren komunikabide guztiak dituena, jakinarazpena hartu eta 2 ordura joateko beranduenean larrialdia gertatzen den eraikinera.

Edozein eratako hondamenak gertatzen badira

posible el funcionamiento habitual de los edificios y de los usuarios.

La empresa adjudicataria tendrá la obligación de realizar todos los trabajos correspondientes al mantenimiento preventivo establecido en el Anexo II, sin que estas constituyan una lista cerrada, y en las siguientes instalaciones cerradas:

- Frontón Uranzu (instalación y txiki).
- Instalaciones de Artia y Trinkete Ramuntxo.
- Campo de futbol de Ugalde-Ventas.
- Campo de fútbol de San José.
- Instalaciones San Marcial - Txingudi.
- Tenis de mesa.
- Campo de rugby y atletismo de Plaiaundi.

- **Mantenimiento Correctivo.**

Mantenimiento correctivo detectado principalmente a partir de las observaciones derivadas de la conducción y vigilancia de las instalaciones. Contempla también la reparación de las averías o desperfectos causados en las instalaciones por el uso o el deterioro de los mismos.

Asimismo, la empresa adjudicataria estará obligada a realizar los trabajos y reparaciones que se le comuniquen en las instalaciones objeto del contrato.

La empresa adjudicataria realizará las intervenciones de mantenimiento correctivo en un plazo menor posible y tomará todas las medidas para que dichas operaciones afecten lo mínimo posible al funcionamiento normal de los edificios y sus usuarios.

- **Mejoras.**

La empresa adjudicataria tendrá la obligación de realizar trabajos puntuales de mejora encomendados por la persona Responsable del contrato que impliquen trabajos de redistribución de espacios, soluciones técnicas a problemas de funcionamiento de las instalaciones, etc.

- **Servicio de urgencias.**

La empresa adjudicataria debe garantizar las intervenciones, en caso de avería o de disfuncionamiento, de forma permanente, incluidos los sábados, domingos y festivos, para lo cual organizará un servicio de atención de 24 horas, dotado de los medios de comunicación adecuados, para acudir al edificio en el que se produzca la urgencia en un plazo de tiempo no superior a 2 horas a partir de la recepción del aviso.

En caso de producirse catástrofes de cualquier tipo provocadas

uholdeengatik, elurte handiengatik, luiziengatik eta larrialdi egoerak sortzen dituzten ezohiko beste arazo batzuengatik, esleipendunak kontratarekin loturiko giza baliabide eta material guztiak jarriko ditu Irungo Udalaren eskura, Babes Zibileko Zerbitzuekin elkarlanean, aipaturiko egoera horien ondorioak ahalik eta denbora laburrenean arindu ahal izateko.

por inundaciones, fuertes nevadas, corrimientos de tierra y otros casos anormales que provoquen situaciones de emergencia, el adjudicatario pondrá a disposición del Ayuntamiento de Irun, la totalidad de medios humanos y materiales adscritos a la contrata para que, en colaboración con los Servicios de Protección Civil, se intente paliar en el menor tiempo posible las consecuencias de las mencionadas situaciones.

2.B.3.- BULEGOAK ETA BILTEGIAK.

Esleipendunak gutxienez lokal bat izango du Irunen bulego gisa egokitua Udalarekiko harremanetarako. Kontratua esleitu ondoren, gehienez ere 3 hilabeteko epean jakinarazi beharko dio helbidea Udalari.

Irungo Udalak, ahal baldin bada bederen, instalazioetako batzuetan biltegi/tailer bat jarriko du enpresa esleipendunaren eskura eskatutako mantentze lanak egiteko. Enpresa esleipendunak beti txukun eta garbi edukiko ditu esparru horiek eta bertan dagoen materiala.

2.B.3.- OFICINAS Y ALMACENES.

La empresa adjudicataria deberá disponer de al menos un local en Irun que deberá estar habilitado como oficina de conexión con el Ayuntamiento. Deberá notificar al Ayuntamiento la dirección, a más tardar, 3 meses una vez adjudicado el contrato.

El Ayuntamiento de Irun siempre que sea posible pondrá a disposición de la empresa adjudicataria un almacén/taller en algunas de de las instalaciones para realizar los trabajos requeridos de mantenimiento. La empresa adjudicataria deberá de mantener en todo momento ordenados y limpios dichos espacios y el material contenido en los mismos.

2.B.4. MATERIALAK ETA ERREMINTAK

Enpresa esleipendunak gaur egun instalazioetan dauden materiala, erremintak eta mantentze-ekipoak erabili ahal izango ditu, udalaren jabetza direnak. Ildo horretan, enpresa esleipendunak horien inbentarioa egingo du gehienez ere bi hilabeteko epean..

2.B.4.- MATERIALES Y HERRAMIENTAS.

La empresa adjudicataria podrá hacer uso del material, herramientas y equipos de mantenimiento actualmente existentes en las instalaciones y propiedad del ayuntamiento. En este sentido, la empresa adjudicataria realizará en el plazo máximo de dos meses un inventario de las mismas.

2.B.5.- LAN METODOLOGIA.

Kontratuak gai dituen mantentze lanei dagokienean, honako xedapen hauen arabera jardungo da:

- Enpresa esleipendunak lizitazio eskaintzan aurkeztutako lan programa hartuko da oinarritzat. Instalazioetan egin beharreko mantentze lanak jasoko dira programa horretan, honekin batera doazen zerrenden arabera, eta kontuan izango ditu Irungo Udalaren mantentze, autokontrol eta prebentzio planak, eta baita indarrean dagoen eta ekipo eta instalazioei aplikatzen zaien arauditik etorritako mantentze lanak ere.
- Programa aldatu beharko da sumaturiko mantentze beharren arabera.
- Mantentze erreaktiboa eta hobekuntza lanak egiteko, bukatzeko aurreikusitako epeak finkatuko dira, egitekoak eta haien ondorioak behar bezala programatu ahal izateko. prebentzio mantenuari eta

2.B.5.- METODOLOGÍA DE TRABAJO.

En todo lo relativo a las distintas labores de mantenimiento objeto de contrato, se actuará conforme a las siguientes disposiciones:

- Se utilizará como base el programa de trabajo presentado por la empresa adjudicataria en la oferta de licitación. Dicho programa deberá incluir las labores de mantenimiento a realizar en las instalaciones según listados adjuntos y deberá tener en cuenta los planes de mantenimiento, autocontrol y prevención del Ayuntamiento de Irun, así como las labores de mantenimiento que se desprenden de la normativa vigente aplicada a los equipos y las instalaciones.
- El programa deberá ser modificado en función de las necesidades de mantenimiento observadas.
- Para la ejecución de tareas de mantenimiento reactivo y mejoras, se fijarán plazos estimados de finalización con el fin de programar adecuadamente las tareas y su efecto respecto del mantenimiento preventivo y recogida de

erregistroen jasotzeari begira.

- Astean behin bilera egingo da mantentze lanen programazioaren eta gauzatzearen jarraipena egin ahal izateko.
- Kontratuaren arduradunak langile teknikariek edozein unetan eskatu ahal izango dute mantentze lanen kontrol eta jarraipenerako beharrezkotzat hartzen duten informazioa.
- Ekainero, kontratuaren mantentze lanen arduradunari lanen proposamena aurkeztuko zaio, bai instalazioak zaharkituak daudelako eta berritu behar direlako, energia eraginkortasun handiagoa lortu ahal izateko, edo bai beste edozein arrazoirengatik. Jarduera horien dokumentazio teknikoa eta balorazio ekonomikoa jasoko dira proposamen horretan, eta baita lor daitezkeen aurrezkien aurreikuspena ere.

registros.

- Se realizará una reunión semanal para el seguimiento de la programación y ejecución de las tareas de mantenimiento.
- La persona Responsable del contrato podrá solicitar en cualquier momento la información que estime necesaria para el control y seguimiento de las tareas de mantenimiento.
- Cada mes de junio deberá presentarse a la persona responsable del mantenimiento del contrato una propuesta de trabajos, bien para la renovación de instalaciones obsoletas, para conseguir una mayor eficiencia energética o por cualquier otro motivo; incluyendo en dicha propuesta la documentación técnica y la valoración económica de dichas actuaciones y estimación de los posibles ahorros.

2.B.6.- MATXURAK KONPONTZEKO ARAUAK.

Kontratoaren arduradunari emango zaio ikuskapenen eta berrikuspenen bidez, edo udalak berak jakinarazita, sumaturiko matxuren berri, matxura horiek mantentze zerbitzuaren barnekoak direnean eta elementuak edo materialak aldatu behar direnean, dagokien balorazioa barne. Lan horiek egiteko baimena lortu ondoren, beharreko konponketak egiten hasiko dira, ahalik eta epe laburrenean egin ere, instalazioko hirugarrenen segurtasun arrazoiengatik edo instalazioan aurrera eramaten diren jardueren funtzionamendua ziurtatzeko berehala jardun behar ez bada bederen.

Esleipendunak instalazioetatik erretiratuko ditu balio ez duten materialak edo material akastunak eta haien bilgarriak.

2.B.6.- NORMAS PARA LA REPARACIÓN DE AVERÍAS.

Las averías localizadas a través de las inspecciones y revisiones o por aviso del ayuntamiento, incluidas dentro del servicio de mantenimiento y que exijan la sustitución de elementos o materiales serán notificados al Responsable del contrato, con su valoración correspondiente. Una vez obtenido el consentimiento se procederá al comienzo de la reparación correspondiente en el menor plazo posible, siempre que por razones de seguridad de terceros de la instalación o por garantizar el funcionamiento de las actividades a las que sirve la instalación sea prescindible actuar de forma inmediata.

La empresa adjudicataria retirará de las instalaciones, tanto los materiales inservibles y defectuosos como sus embalajes.

3.- DOKUMENTAZIOA.

Esleipendunak instalazio bakoitzerako egunean edukiko du jardueren eta gorabeheren erregistro liburua. Honako eduki hauek azalduko dira liburu horretan:

- Instalazioen benetako okupazioak zerbitzua eskaintzen den ordutegian.
- Erreserbaturiko ordutegietan izandako ez etortzeak, zerbitzua eskaintzen den ordutegian.
- Beste gorabehera batzuk.
- Ikastetxeen kasuan, egoera orokorra eta balizko kalteak, ixteko orduan ikastetxeetako patioetan dauden ekipamendu eta instalazioetan.

3.- DOCUMENTACIÓN.

La empresa adjudicataria mantendrá al día, para cada instalación, el libro de registro de actividad e incidencias en el que deberán de reflejarse los siguientes contenidos:

- Las ocupaciones efectivas de las instalaciones en el horario de cobertura del servicio.
- Inasistencias en horarios reservados, en el horario de cobertura del servicio.
- Otras incidencias.
- En el caso de los centros escolares, estado general y posibles daños en equipamiento e instalaciones existentes en los patios de los centros en el momento de cierre. Incidencias.

Erregistro liburu hauek paperean eta formatu informatikoan erregistratuko dira eta eguneratuak egongo dira beti, baita kontratuaren arduradunaren eskura.

Bestalde, esleipendunak egunean edukiko du eraikin bakoitzerako mantentze liburua, indarrean dagoen legeriaren arabera. Honako gorabehera hauek jasoko dira bertan:

- Bisitak eta prebentzio mantentze sistematikorako lanak.
- Aurreikusitako esku hartzeak, baldintzapekoak eta zuzentzaileak.
- Bere ekimenez nahiz Irungo Udalaren ekimenez eginiko aldaketak eta lanak.
- Ur, gas eta elektrizitate kontsumoen erregistroa.

Beharreko araudiekin loturik (Legionelosiaren prebentzioa, behe tentsioaren araudia eta beste) aurrera eraman diren kontrol ekintza guztien erregistroak jasoko dira indarrean dagoen araudiak xedaturiko moduan edo kontratuaren arduradunak jakinarazitako irizpideen bidez.

Jarduera bakoitzean honakoak aipatuko dira:

- Data.
- Jarduera mota.
- Aldatutako piezak.
- Beharreko oharrak.

Baldintza Teknikoen Plegu honek gai dituen instalazioen mantentze liburuak eta jarraipenerako egunerokoak kontratuaren arduradunaren eskura egongo dira uneoro, kontsultatu ahal izateko. Paperean eta formatu informatikoan erregistratuko dira eta eguneratuak egongo dira beti.

Estos libros de registro se registrarán en papel y formato informático, y estarán en todo momento actualizados y a disposición de la persona responsable del contrato.

Así mismo, la empresa adjudicataria mantendrá al día, para cada edificio, el libro de mantenimiento de conformidad con la legislación vigente, en el que deberán de reflejarse las siguientes incidencias:

- Las visitas y trabajos de mantenimiento preventivo sistemático.
- Las intervenciones preventivas condicionales y correctivas.
- Las modificaciones y trabajos realizados a su iniciativa o a la del Ayuntamiento de Irun.
- El registro de los consumos de agua, gas y electricidad.

Se anotarán todos los registros de las acciones de control llevadas a cabo que estén sujetas a normativa (Prevención de Legionelosis, reglamento de baja tensión y otras) en la forma en que se establezca por la normativa vigente o a través de los criterios comunicados por la persona responsable del contrato.

Para cada operación se mencionarán:

- La fecha.
- El tipo de operación.
- Las sustituciones de piezas realizadas
- Las observaciones pertinentes.

Los libros de mantenimiento y los diarios de seguimiento del conjunto de las instalaciones objeto del presente Pliego de condiciones técnicas estarán, en todo momento, a disposición de la persona responsable del contrato para su consulta. Dichos libros de mantenimiento se registraran en papel y formato informático y estarán en todo momento actualizados.

4.- IBILGAILUAK.

Enpresa esleipendunak kontratuaren xede diren lanak egiteko behar dituen ibilgailuak izan beharko ditu. 2.B.4. atalean aurreikusitakoaren arabera enpresa esleipendunaren eskura jarritako materialei eta tresnei kalterik egin gabe, ibilgailuek agindutako lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren tresna guztiak izan beharko dituzte, eta horiek, gainera, behar bezala eguneratuta eduki beharko dituzte, hori guztia enpresa esleipendunaren kontura.

Enpresa lizitatzaileek berariaz eta zehatz-mehatz adierazi beharko dute beren eskaintzan zein ibilgailuk (zein material eta tresnarekin hornitzen diren barne) erabakitzen duten zerbitzuari atxikitzea eta aurreikusitako lanak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten.

4.- VEHÍCULOS.

La empresa adjudicataria vendrá obligada a disponer de los vehículos necesarios para realizar los trabajos objeto del contrato. Sin perjuicio de los materiales y herramientas puestos a disposición de la empresa adjudicataria conforme a lo previsto en el apartado 2.B.4., los vehículos deberán estar equipados con todas las herramientas necesarias para el adecuado desarrollo de los trabajos encomendados, las cuales, además, deberán mantener debidamente actualizadas, todo ello, por cuenta de la empresa adjudicataria.

Las empresas licitadores deberán hacer constar expresa y detalladamente en su oferta los vehículos (incluyendo los materiales y herramientas con los que se equipen), que decidan adscribir al servicio y consideren necesarios para el desarrollo de las labores previstas.

Enpresa esleipendunaren kontura eta kontura izango da edozein ibilgailu erostea, bere tresnekin eta ama-tresnekin, bai eta ibilgailu horiek guztiak kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak ere, kontratua indarrean dagoen bitartean behar bezala funtziona dezaten. Kontratuaren esku jarritako baliabide materialak esleipendunaren zuzeneko jabetzakoak izan daitezke, edo merkataritzako edo finantzako beste edozein errentamenduren bidez eskuratutakoak.
Enpresa lizitatzaileek eskaintzen dituzten ibilgailu guztiak eta horien tresnak eta materialak erabiltzeko eta kontserbatzeko egoera ezin hobean egongo dira, eta Irungo Udalak baztertu ahal izango ditu baldintza horiek betetzen ez dituztenean, eta esleipendunak beste ibilgailu egoki batzuekin ordezkatu beharko ditu. Bai ibilgailu-kopurua, bai horien izendapena, definizioa, ekipamendua eta matrikulazio-data esleipenaren hasieran agertuko dira. Egin beharreko funtzioetarako egokiak izan beharko dute.

La adquisición de cualquier vehículo, con sus herramientas y materiales, será por cuenta y a cargo de la empresa adjudicataria, así como los gastos de conservación y mantenimiento de todos ellos para un perfecto funcionamiento durante el periodo de vigencia del contrato. Los medios materiales puestos a disposición del contrato podrán ser de propiedad directa del adjudicatario o adquiridos mediante cualquier otra forma de arrendamiento mercantil o financiero.

Todos los vehículos que oferten las empresas licitadoras, así como sus herramientas y materiales, se encontrarán en perfecto estado de utilización y conservación, pudiendo ser desechados por el Ayuntamiento de Irun cuando no reúnan estas condiciones y debiendo el adjudicatario sustituirlos por otros adecuados. Tanto el número de vehículos, como su nominación, definición, equipamiento y fecha de matriculación figurará al inicio de la adjudicación. Deberán ser adecuados a las funciones que deban realizar.

Ibilgailuek kanpoko itxura ona izan beharko dute etengabe, eta Irungo Udalak zehazten dituen koloreekin eta sinboloekin margotuko dira. Segurtasunari, aseguruei eta ikuskapenei buruz indarrean dagoen legeria bete beharko dute.

Los vehículos deberán tener permanentemente un buen aspecto exterior y serán pintados con los colores y símbolos que defina el Ayuntamiento de Irun. Deberán cumplir con la legislación vigente en materia de seguridad, seguros e inspecciones.

Zerbitzuari atxikitako ibilgailuak ezin izango dira beste helburu batzuetarako erabili, Irungo Udalak berariazko baimena eman ezean.

Los vehículos adscritos al servicio no podrán ser utilizados para otros fines, salvo autorización expresa del Ayuntamiento de Irun.

Herritarrenganako irudiarekin lotutako alderdiei dagokienez, ibilgailuek, tresnek eta materialek honako hauek bete beharko dituzte:

- Bere garaian onartzen diren ekipoen homologazioaren bidez behar diren pintura-arauak.
- Lantalde guztiak zorrotz garbitzea lanaldi bakoitza amaitzean.
- Baimendutako zarata- eta kutsadura-maila minimoak.
- Konponketa estetikoak, ekipoek hala eskatzen dutenean.

En cuanto a los aspectos relacionados con la imagen hacia el ciudadano, los vehículos, herramientas y materiales deberán cumplir:

- Normas de pintura que se precisen a través de la homologación de los equipos que en su momento se aprueben.
- Estricta limpieza de todos los equipos al finalizar cada jornada de trabajo.
- Mínimos niveles de ruido y contaminación permitidos.
- Reparaciones estéticas cuando así lo requieran los equipos.

Emisioak edo energia alternatiboak murrizten dituzten erregaiak dituzten ibilgailuen aukerak hartuko dira kontuan.

Se tendrá en cuenta las opciones de vehículos con combustibles con reducción de emisiones o energías alternativas.

5. LANGILEAK

Mantentze-lanez arduratzen diren langileek, gutxienez, II. eranskinean zerrendatutako mantentze prebentiboko lanak (altuerako lanak, legionelosia, etab.) egiteko beharrezko kualifikazioa eta/edo titulazioa izan beharko dute.

5.- PERSONAL.

El personal encargado de realizar labores de mantenimiento deberá tener como mínimo la cualificación y/o estar en posesión de la titulación necesaria para realizar las labores de mantenimiento preventivo (trabajos en altura, legionelosis, etc…) relacionadas en el Anexo II.

Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko izendatzen

La empresa adjudicataria deberá facilitar a la persona

dituen teknikari eta langileen izenak, kategoriak eta gainontzeko zirkunstantzia pertsonalak jakinarazi beharko dizkio kontratuaren arduradunari, baita gertatzen diren aldaketak ere.

Kontratistak bere proposameneko organigraman eta lantaldean zehaztutako langileak izango ditu gutxienez. Baja, baimen edo oporrengatik lanera joaten ez direnak ordezkatu beharko ditu, eta, aldaketaren bat gertatzen bada, kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio, berehala.

Kontratua betetzeko izendatzen diren langileek behar bezalako uniformea eramango dute, eta identifikazio plaka bat eramango dute, ageriko lekuan, beren eta enpresaren izenarekin.

Gerritik gora, mantentze lanetako langileen uniformea (poloa, izerditzeko jertsea edo antzekoa) kolore eta tonu berekoa izango da; ahal bada, gorria.

Kontratua betetzeko izendatzen diren langileetako batek kontratuaren arduradunarekiko solaskide lanak egin beharko ditu, eta hark egiten dituen errekerimenduak kudeatu.

Urtero, enpresa esleipendunak trebatzeko eta hobetzeko ikastaroak emango dizkie instalazioak kontserbatzeaz arduratzen diren langileei. Ikastaro horien data hamabost egun lehenago jakinaraziko zaio kontratuaren arduradunari.

6.HIZKUNTZ BALDINTZAK:

Esleipendunak baldintza hauek betez eman behar du zerbitzua:

Zerbitzuaren erabiltzaileek edozein hizkuntz ofizial erabiltzeko eskubidea dute, beraz, hitz egiten duten hizkuntzan artatuak izango dira; ezingo zaie eskatu hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egin dezaten. Komunikazioan kontratu honen menpeko langileak hasten badira euskara erabiliko dute eta herritarrak erabakiko du euskaraz ala gaztelaniaz jarraitu.

Ahoz, audioz edo ikus-entzunezkoen bitartez erabiltzaileari ematen zaizkion mezuak eta komunikazioak (informazioa, oharpenak, megafonia…) euskaraz, edo elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz). Kontratua dela eta egindako aurkezpenak, ekitaldi publikoak, prentsaurrekoak eta antzekoak modu berean egingo dira.

Erabiltzaileei zuzendutako idatzi zein elementu grafiko

responsable del contrato los nombres, categorías y demás circunstancias personales tanto de los técnicos, como de los operarios adscritos a la ejecución del contrato, así como las variaciones que se produzcan.

La empresa adjudicataria dispondrá, como mínimo, del personal definido en el organigrama y plantilla de su propuesta, estando obligado a sustituir las ausencias, ya sean por bajas, permisos o vacaciones, e informar de inmediato a la persona responsable del contrato cualquier variación en las mismas.

El personal adscrito a la ejecución del contrato deberá estar correctamente uniformado, portando en lugar visible una placa identificativa con su nombre y el de la empresa.

La parte superior (polo, sudadera o similar) del uniforme deberá ser de un color y tono únicos para todos los empleados de mantenimiento, preferiblemente roja.

Entre el personal adscrito a la ejecución del contrato, una de las personas deberá cumplir las funciones de interlocución con el responsable del contrato, asistiendo y gestionando los requerimientos que éste realice.

La empresa adjudicataria dará anualmente cursos de capacitación y perfeccionamiento al personal encargado de la conservación de las instalaciones. La fecha de estos cursos será comunicada al Responsable del contrato con quince días de anticipación.

6.- CONDICIONES LINGÜÍSTICAS:

El adjudicatario debe prestar el servicio cumpliendo las siguientes condiciones:

Las personas usuarias del servicio tienen derecho a usar cualquiera de las dos lenguas oficiales debiendo ser atendidos en el idioma en que se expresen, sin poder solicitarles que se expresen en una u otra lengua. Si la comunicación la inicia el personal adscrito al contrato inicialmente usarán el euskera y será el usuario/a quien decida comunicarse en euskera o en castellano.

Los mensajes y comunicaciones orales, de audio o audiovisuales (información, avisos, megafonía…) destinados al usuario se realizarán en euskera, o en bilingüe dando prioridad al euskera (primero en euskera y después en castellano). Las presentaciones, actos públicos, ruedas de prensa y similares relacionadas con el contrato se realizarán de la misma manera.

Todo escrito o elemento gráfico dirigido a los usuarios

guztiak euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

realizará en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Kontratuari lotutako kartelak, panelak, errotulu edo errotulazioak euskaraz edo elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

La cartelería, paneles, rótulos o rotulación en relación con el contrato se realizará en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Enplegatuen identifikazioak (txartela, plaka …) eta uniformeek testurik badute, testu hori euskaraz ala elebietan egongo da.

Si la identificación (tarjeta, placa…) y los uniformes de los empleados incluyen texto este estará en euskera o en bilingüe.

Enpresak udal arduradunekin aritzeko jartzen dituen solaskideek horretarako euskarazko maila nahikoa izan beharko dute.

Los interlocutores de la empresa con los responsables municipales del contrato deben tener conocimiento de euskera suficiente para realizar su trabajo en euskera.

Kontratatzaile eta kontratistaren arteko komunikazio idatzien euskarriak (parteak, formularioak, fitxak, erregistro liburuak, euskarri informatikoa…) euskaraz edo elebietan lan egiteko prestatuak egongo dira.

Los soportes para las comunicaciones escritas entre el contratador-contratista (partes, formularios, fichas, libros de registro, soporte informático, etc.) deberan estar preparados para trabajar con ellos en euskera o en bilingüe.

Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola fakturak, balantzeak, txostenak, memoriak, ebaluazioak eta abar euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Todos los documentos no públicos o internos relativos al contrato, como facturas, balances, informes, memorias, evaluaciones, etc., que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Plegu honetan aurreikusitako subrogatzeko obligazioen kalterik gabe, ziurtatu beharko da kontratuari atxikitako langileek euskararen ezagutza-maila egokia izan beharko dutela zerbitzu egokia eman ahal izateko. Ordezkapenak egin edo langile berriak kontratatu behar direnean alderdi hori kontuan izan beharko da. Kontratua kudeatzeko enpresak langileei formazioa emango balie, euskaraz edo elebietan beharko du.

Sin perjuicio de las obligaciones de subrogación previstas en el presente pliego deberá asegurarse que el personal adscrito al contrato tiene el conocimiento del euskera adecuado para atender correctamente al servicio. En el caso de sustituciones o contratación de nuevo personal se tendrá en cuenta este aspecto. La formación que la empresa imparta a los trabajadores para la gestión del contrato será en euskera o bilingüe.

Kontratu honetan zerbitzua egoki emateko beharrezko euskara mailak hauek dira: solaskidearen kasuan Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila; erabiltzaileekin harreman zuzena duten langileen kasuan, B2 maila.

En este contrato el nivel adecuado de euskera requerido para atender correctamente el servicio es el C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas, en el caso del interlocutor con responsable del contrato y el nivel B2 en el caso de los empleados con relación directa con los usuarios.